



## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Zitappen banaketari dagokionez, bi fase bereziko ditugu, lehen fasea kanal mota zehaztea izango da. Aldiz, bigarren fasea, kanalaren faseak bereiztea eta zehaztea izango da.

Gure zerbitzuan, bi figura bereizten ditugu. Alde batetik, gure bezeroak definizioz, bazkideak izango dira, haiei esker lortuko bait ditugu diru sarrerak eta haiek gabe gure enpresak ezin izango du aurre egin. Beste aldetik bezero arruntak ditugu, haiei bideratutako enpresa bat sortu dugunez, beharrezkoak dira.

Kanal motari dagokionez, hau da, nola iritsiko den bezeroengana, kanal propioa izango da, baita zuzena ere, gurea bait da app-a eta ez dugu bitartekorik erabiliko bezeroarengana iristeko. Oso ondo zainduko ditugu gure bazkideak (app-an haien zerbitzua salduko dutenak) beraiek direlako diru-sarrerak emango dizkigutenak. Gure balio proposamena bazkideengana hurbiltzen da gehien bat, haiei esker diru sarrerak izango ditugulako, gure bezeroen bitartekari bezela kobratzen dugulako.

ZITAPP enpresarekin kontaktuan jartzeko web orrian korreoa eta telefono zenbakia eskugarri izango du nahi dutenak. Web orrian informazio orokorra aurki ditzakegu eta galdera pertsonalenzako atal bat aurki daiteke, hala nola, dituzten kezka guztiak konpontzeko konpromisuarekin. Bezeroak, gurekin komunikatzeko, ebaluazio esteka bat ipiniko dugu. Bertan, bezeroak bai app-aren erabilera eta baita zerbitzua puntuatzeko aukera edukiko dute.

Bazkideak lortzeko, lehen fasea informazio zuzena erabiltzea izango da, hainbat enpresetara joanez gure zerbitzua eskainiz.

Komunikazio kanalari dagokionez, lehenengo erabiliko dugun iragarki iturria Oarsoaldeako hitzako iragarki bat izango da. Erabiliko dugun formatua hurrengoa izango da: 4x2ko faldoia ---> 80 euro + BEZ. Ondoren, Diario Vasco-n ezarriko dugu iragarki berbera

3.871 €-etara, honek orrialde erdia okupatuko du.



EUSKADI IRRATIA					
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
	Lunes	Martes	Miércoles	Jueves	Viernes
6:00	110 €				

Azkenik, irratia erabiliko dugu gure app-a publizitzeko. Ordu tarte hau aukeratu dugu, bertan, lanpedunen %75-ak iragarkiak entzuten dutelako lanerako bidean Euskal Herrian. Haietatik %45-ak euskal irratia erabiltzen du. 110€-ko kostua du hogeitasegunduko iragarki bat goizeko 6-tatik-8etara argitaratzea.

Hasiera batean hauek izango dira erabiliko ditugun iragarki iturriak, horrela Oarsoaldean zerbitzu hau bultzatuz. Diru sarrerak horrela nahiko balute gure zerbitzua leku gehiagoetara zabalduko genuen. Beraz, iragarkiak beste modu batzuetara jarri beharko genituen.